



**reas** nafarroa  
ekonomia alternatibo eta elkartasunezkoaren sarea

## bestelako ekonomia posible da

**Reas Nafarroa**ren bigarren urteurrena betetzear denean, Sare honen izaera jendaurrean ezagutzera eman nahi dugu honako arrazoi hauengatik:

- Elkartasunezko Ekonomia ezagutzera ematea, ohizko ekonomiaren alternatiba modura.
- Elkartasunezko Ekonomia mugimendu bezala nabarmentzea.
- Nafarroako gizartearekin eta eragile sozial guztiekin, erlazio ekonomiko bidezkoago, gizatiarrago eta elkartasunezkoago batzuen garapenean elkarrekin lan egiteko nahia.

### reas - NAFARROA ZENBAKIETAN

- Gaur egun **33 erakunde** gara, horietatik **22 enpresak direlarik**.
- **12 miloi euro** baino gehiagoko **irabaziak** 2003an.
- **614 pertsona** baino gehiago **kontratatu**.
- la **300 pertsona bolondres moduan**.

### SARRERA

**reas - NAFARROA** 2003ko Abenduaren 12an sortu zen, ekonomia elkartasunezko oinarriak lantzen urteak (baten bat 30 urte baino gehiago) daramatzaten talde batzuen arteko elkarbatze prozesu baten ondorioz.

**Reas mugimendu anitza** da bere jatorriari dagokionean, merkataritza zuzena lantzen duten GKE(ONG)ak, nekazaritza eta abelzantza ekologikoko ekimenak, gizarteratze eta laneratze zentruak, ekimen sozialeko erakundeak, sektore desberdinetako empresa solidarioak: turismoa, teknologia berritzaileak, berziklapena, ehunen merkataritza, ekintza artistikoak, etxez-etzeko eta haurtzaroari arreta, garbiketara, lorazaintza, grafikak, igeltseroak eta industriarentzat zerbitzu osagarriak batuz. Modu partikularrean parte hartzen duten pertsonak ere batzen ditu.

**Ekonomia, gizartea aldatzeko eta garapen gizabidezko, jasangarri eta partehartzaile bat** ahalbidetuko duen justizia eraikitzeko tresna bat ere badenaren sinismenak elkartzen gaitu. Bide honetan bertan, elkartasunezko ekonomia gizarte bazterketaren aurkako tresna boteretsu bat ere badela uste dugu.

Bide honetan Nafarroan lan egiten duten pertsona, erakunde, GKE(ONG) eta ekimen sozial eta ekonomiko guztiak onartu eta batu nahi ditugu, proposamen kolektiboak indartuz eta gizartean benetako eragina izan dezaten saiaturaz, gizarte aldatetaz ari bagara. Gure helburua, irekia, partehartzailea, kritikoa, azpitik hasita eratutakoa, prozesuei garrantzia ematen diena eta

komunitatearentzako baikorrak izango diren proposamen zehatz eta benetakoekin lan egingo duen sarea izatea da.

Ekoiaren, kontsumoan eta finantzapenean koherente izan nahi dugu, elkartasunezko enpresa-sektore bat bultzatuz, kalitatezko eta gizarte-ikuskaritzako tresnak erabiliz, kontsumo arduratsua bultzatuz, finantza-tresna etikoak bultzatuz eta ekonomia mota honen sustapenean, hezkuntzan eta gizarte partehartzean indar eginez. Sare hau mundu osoan zabaldua dagoen elkartasunezko ekonomia mugimenduak lagundu eta abalatzeko du, bere

espresiorik garrantzitsuen Lurraldeakako eta Mundu mailako Gizarte Foroen bitartez du eta European Frantzia, Italia eta Belgika, Hego eta Ertamerikan Brasil,

Argentina eta Kolonia, Ipar Amerikan Kanada eta Mexiko, Afrikan Senegal eta Asian India bezalako herrialdeetako errealitate oso esanguratsuetan zehazten da. Hala ere, 2001ean Québecen (Kanada) izan zen Elkartasunezko Ekonomiaren bilkuran 35 herrialde ezberdinetako esperientziak elkartu ziren. 2005ean beste bilkura bat izango da Dakarren (senegal), zeinean partehartze garrantzitsuagoa espero den.

Estatu Espainolean **reas** urtetik urtera zabaltzen ari da eta gaur egun beste 11 lurraldeetako sarrekin elkarlanean ari da.

"Beste mundu bat posible dela" eta hau lortzeko mantentzen duen bizkar hezurra aldatzea ezinbestekoa dela uste dugu. "**Beste ekonomia bat posible da**".

## bestelako ekonomia posible da

### ELKARTASUNEZKO EKONOMIAREN EREDUA

Ekonomia konbentzionalak kapitalaren zerbitzura dagoen ekonomia bat bultzatzen du, gizakiok giza-baliabide hutsen modura hartzen gaituena eta non kapitalaren kontzentrazioa gero eta pertsona gutxiagoen eskuetan dagoen. Egoera hoenk gizazpiko garapena sortzen du.

“Munduko biztanleria aberatsenaren %ko 1ak gizateriaren %ko 57ak bezainbeste aberastasun dauka”. (Iturria: Giza Garapenaren inguruko txostena)- PNUD, 2002).

Ez dugu ahaztu nahi ekonomia honek herrialde osoak krisi ekonomikora eramaten dituela, gertatzen ari diren gudek beren sorrera botere ekonomikoaren sisteman dutela, ingurugiroan aldaketa jasangaitzak eragiten ari direla, eguneroko transakzio ekonomiko guztien %ko 99a espekulatiboak direla, gizateriaren hiru laurden mixerian bizi direla... eta Nafarroan 6.000 familiak

gizarte bazterketa jasaten jarraitzen dutela.

**Munduko biztanleria aberatsenaren %ko 1ak gizateriaren %ko 57ak bezainbeste aberastasun dauka. Nafarroan 6.000 familia gizarte bazterketa egoeran bizi dira.**

Guzti honengatik soilik sen ona edukitzea behar dela uste dugu, ez garela ezer asmatzen ari eta ekonomiaren jatorria itzuli eta bere pertsonen zerbitzura egongo den tresna modura bere lekuan jartzea soilik egin behar dela.

Oinarrizko printzipio honetatik, eta estatuko sare guztien arteko adostasunarekin, “Elkartasunezko Ekonomia”ren oinarriak batzen dituen

**Ekonomiaren jatorria itzuli besterik ez da egin behar eta bere lekuan jarri: pertsonen zerbitzura egongo den tresna modura.**

“Elkartasun-Gutun” bat landu zen, batzen gaituen eta elkarlanean aritzeko koherentzia ematen digun

proposamena izanik.

Halaber, ekonomia bizitzaren arlo guztietan (osasuna, hezkuntza, kultura, kontsumoa, etxe-ekonomia...) dagoela deritzogu, honengatik oinarri orokor hauek erlazio ekonomiko guztietara moldatu daitezkeela uste dugu.

### ELKARTASUN-GUTUNAREN OINARRIAK

**Berdintasuna eta ekitatea:** Enpresaren edo erakundearen ekintzetan interesatutako protagonista guztien interesak modu orekatuan asetzea.

**Enplegua-lana:** Helburua enplegu egonkorra sortzea eta egoera kaxkarrean dauden edo prestakuntzarik ez duten pertsonen sarbidea bultzatzea da. Langile bakoitzaren lan baldintza eta ordainsari duinak ziurtatzea, beraien garapen pertsonala eta erresponzabilitzteen hartzea ziurtatuz.

**Ingurugiria:** Ingurugiroa denbora motz eta luzera kaltetuko ez duten ekintza, produktu eta produkzio moduak bultzatzea.

**Lankidetzak:** Erakundearen barne eta kanpo lankidetzak bultzatzea elkarren arteko lehiaren orde.

**Irabazi-asmorik gabe:** Elkartasunezko Ekimenek ez dute irabazien lorpena helburu bezala izango, baizik eta sustapen gizatiar eta soziala, baina hau ez da oztopo irabazi eta gastuen arteko zenbaketa orekatzea ezinbestekoa izateko eta, ahal bada, irabaziak lortzeko. Baina izan daitezkeen irabaziak ez dira irabazi pribatu moduan banatuko, baizik eta egitasmo sozialak, ekimen solidario berriak edo garapenerako lankidetzak, beste batzuren artean, bermatzearen bidez gizartera itzuliko dira.

**Ingurunearekin erantzukizuna:** Elkartasunezko Ekimenak, hedatzen diren ingurune sozialean guztiz txertatuta egongo dira eta honek lurraldeko hainbat erakunderekin lankidetzak eta sareetan partehartzea beharrezko egiten ditu, elkartasunezko esperientzia zehatzek eredu sozio-ekonomiko alternatibo bat sortu ahal izateko bide bakarra izanik.

## bestelako ekonomia posible da

### reas - NAFARROAREN ERREALITATEA

'Ekonomia Alternatibo eta Elkartasunezkoaren Sarea'

**Reas - NAFARROA** sortzeko beharra Iruñeako Foro Sozialean (2002ko Maiatza) agertu zen, zeinean zenbait erakundek eredu ekonomiko hau zabaltzearen garrantzia ikusi genuen.

Hainbat erakundek estatu eta nazioarte mailan bateratzen den Reas Euskalerrian 1995etik hasita parte hartu izanak abiapuntu ona suposatu du. Nafarroako hainbat erakunderen arteko bateratze prozesu baten ondore, 2003ko Martxoan topaketa bat burutu zen Beiren, zeinean hainbat batzorde sortzea hitzartu zen, urte bereko Abenduan burutu zen Biltzar Eratzailera arte.

Biltzar honetan ondoko iharduera-ildo orokorrak onartu ziren:

1. Sare eraginkor bat garatzea eta sendotzea.
2. Elkartasun-Gutunaren oinarriak garatzeko lan egingo duten ekimen ekonomiko, enpresarial eta finantzarioen baliabideak sustatzea, berrmatzea, bateratzea eta elkar-banatzea.
3. Kontsumo ekologikoa, etikoa, bidezkoa eta arduratsua sustatzea.
4. Elkartasunezko ekonomiaren garapena sustatuko duten finantza-tresna alternatiboak sortzea eta garatzea.
5. Erlazio ekonomiko gizatiarrago, bidezkoago eta elkartasunezkoago batzuk sustatuko dituzten sentsibilizazio eta hezkuntza baliabideak bultzatzea.
6. Nafarroako egitura sozial eta ekonomikoarekin egitarau eta ekintzak bateratu eta elkar-banatzea eta estatu eta nazioarte mailako ekonomia sozialeko sareen egituraketan parte hartzea.

**Reas - NAFARROA**ko partehartzearen **ORGANIGRAMA** ondoko hau da:

- **BILTZARRA** (hiruhilabetero topaketak eta urtean behin biltzar berezia)
- **ZUZENDARITZA-BATZORDEA**
- **IDAZKARITZA TEKNIKOAK**
- **LAN-BATZORDEAK**
  - o Enpresak
  - o Gizarteratze eta Laneratze Zentruak
  - o Kontsumo arduratsua eta Sentsibilizazio soziala
  - o Banku etikoa
  - o Nazioartekoa
  - o Komunikazio batzordea

### EKINTZAK

Sarean garatzen ari diren ekintzarik esanguratsuenak hauek dira:

- Elkartasunezko Ekonomiaren Gida.
- Kontsumo Arduratsuaren Gida eta Kale-Izandegia (produktu ekologikoak eta bidezko merkataritza).
- Kontsumo Arduratsuaren inguruko Gida.
- Erosketa-Zentrala.
- Trebakuntza Teknikoko Plana.
- Ikuskaritza Sozialari eta Elkartasunezko Ekonomiari buruzko Jardunaldia.
- Gizarteratze eta Laneratze Zentruen inguruko ikerketa eta 2005eko Uztaileko Enplegu-Planaren Neurriak.
- Hainbat erakunderentzako ikastaro eta hitzaldiak.
- Barne Buletina.
- Elkartasunezko Maileguen garapena.
- Fiare Fundazioan (banku etikoa) txertatzea.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboaren inguruko Foroan parte hartzea.
- Pobreza Cero kanpainan parte hartze zuzena.
- NavarraBio 2005 Ferian parte-hartzea.

### SAREAREN DATUAK (2004)

#### SAREAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

**Guztira 33 erakunde**

<b>22</b> enpresa	<b>11</b> erakunde	eta <b>15</b> pertsonek partikular gisa
----------------------	-----------------------	-----------------------------------------------

#### REAS NAFARROA ERAKUNDE ETA ENPRESETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONAK

**614** pertsona kontratatuta

<b>355</b> emakume - %ko 58	<b>259</b> gizon - %ko 42
-----------------------------	---------------------------

**296** pertsona bolondres moduan

<b>189</b> emakume - %ko 64	<b>107</b> gizon - %ko 36
-----------------------------	---------------------------

#### SAREKO ERAKUNDE ETA ENPRESEN DIRU-SARREREN DATUAK **12.299.829** euro (2004)

- » %ko 70 a fakturazioa
- » %ko 26 a dirulaguntzak
- » %ko 4 a beste batzuk

## bestelako ekonomia posible da

### ERAKUNDEAK, ENPRESAK ETA PERTSONAK

**REAS NAFARROAN** parte hartzen duten erakunde, enpresa eta pertsonak hauek dira:

- **4Vientos.** "Garbiketa zerbitzuak ." Sozietate Mugatua
- **Acción Solidaria.** "Hezkuntza eta sentsibilizazio soziala." Fundazioa
- **Alter-nativas.** "Interkulturalitatearen sustapena." Elkartea
- **Casa Amigas.** "Hautzaroi arreta zerbitzuak." Fundazioa
- **Dosalcubo.** "Teknologia berritzaileak eta komunikazio soziala." Sozietate Mugatua
- **Ederbide - Visualiza.** "Komunikazio bisualeko agentzia." Sozietate Mugatua
- **Elkarte.** "Trebakuntzako eta merkataritza industrialeko zerbitzuak." Fundazioa
- **Empleo y Desarrollo.** "Industriarentzako zerbitzu osagarriak." Elkartea
- **Eurolan.** Kopia-denda, paper-denda, diseinua eta arte grafikoak." Fundazioa
- **FISC.** "Nazioarteko lankidetzak." Fundazioa
- **Empresa y Solidaridad.** "Enpresen kolektiboarekin txirotasunaren aurkako borroka eta garapenaren laguntzarako elkarlana." Fundazioa
- **Gaztelan.** "Enplegu-sustapeneko zerbitzuak." Fundazioa
- **Hegoak.** "Drogomenpekotasunaren arazoen prebentzioa." Elkartea
- **IDES.** Beireko landa-turismoko zentrua." Fundazioa
- **Ilundain.** "Hezkuntza sozialeko, eraikuntzako, zurgintzako eta lorazaintzako zerbitzuak." Fundazioa
- **Inserlantxo.** "Zerbitzuak eta eraikuntzak." Sozietate Mugatua
- **Josenea.** "Lorazaintza eta produktu ekologikoak." Elkartea
- **Landare.** "Kontsumitzaile ekologikoen elkartea." Elkartea
- **Larrasal.** "Erbien etxaldea." Autonomoa
- **Miluce.** "Etxez-etxeko arreta zerbitzuak." Fundazioa
- **Mugarik Gabe.** "Nazioarteko lankidetzak." Elkartea
- **Nabuf.** "Ehun merkatariak." Fundazioa
- **OCSI.** "Nazioarteko lankidetzak eta Bidezko merkataritza." Elkartea
- **Oteiza.** "Nazioarteko lankidetzak." Oinarriko komunitatea
- **Proclade.** "Nazioarteko lankidetzak." Elkartea
- **Secretariado General Gitano.** "Ijito komunitatearen osotasuneko sustapena." Fundazioa
- **Setem.** "Nazioarteko lankidetzak eta Bidezko merkataritza." Elkartea
- **Tierra.** "Garbiketa zerbitzu ekologikoak." Autonomoa
- **Transforma.** "Etxez-etxeko arreta zerbitzuak." Fundazioa
- **Traperos de Emaús.** "Hiriko hondakin solidoen bilketa eta berziklapena." Fundazioa
- **Trigo Limpio.** "Produktu ekologikoen ekoizpena eta merkaturatzea." S.A.T.
- **Varazdin.** "Industriarentzako zerbitzu osagarriak." Sozietate Mugatua
- **Yunnan.** "Txinatar medikuntza tradizionalen Zentrua" Sozietate Mugatua
- 15 pertsona partikular gisa

### ERANTZUKIZUNAK ETA PROPOSAMENAK

Nafarroako gizartearekin eta eragile sozial guztiekin erlazio ekonomiko bidezkoago, gizatiarrago eta elkartasunezkoago batzuen garapenean elkarlanean aritu nahi dugu.

Nafarroan jadanik bide honetan lanean ari diren pertsona, erakunde, GKE(ONG), ekimen sozial eta ekonomiko guztiekin sarea osatu nahi dugu, proposamen kolektiboak indartuz eta gizartearen benetako eragina izan dezan saiatuz.

Elkartasunezko Ekonomiaren garapenaren sustapena lortzea ahalbidetuko duten proposamen zehatzak sustatu eta publiko egingo ditugu.

Sarearekin kontaktuan jarri nahi duten pertsona, erakunde eta enpresek ondoko helbide eta telefonoen bitartez egin dezakete:

### IDAZKARITZA TEKNIKOA:

#### Natalia Martínez eta Itziar Berasain

- Navarrería, 27 baxua, 31001 Pamplona - Iruña
- Teléfono: **948 22 53 12**
- [secretariareasnavarra@reasnet.com](mailto:secretariareasnavarra@reasnet.com)
- [www.economiasolidaria.org](http://www.economiasolidaria.org)



2004ko prentsurrekoaren irudi bat